

abaro 'babeslekua'	«...sarobera erretiratzen ginen eta pilatzen azken gautxoriak, halanola ardiak beren abarora .»	
abelera 'egoera'	«Nahita ere ez zuen abelera hartan zamarra patrikatik ezer aterako mutil mendean hartuak.»	(25)
abio 'azkar baten'	«Lehendabizi egunkariari heltzeko ohitura nuen beti ere. Abioan eman ohi nion ikuspasada...»	(118)
agidanean 'itxura zenez, antza'	«Huraxe ere, agidanean , lehengo iharrak biribildu eta, asko bezala, aldaketako gizen-zabalekin kezkatzen hasia zela...»	(13)
agitu 'gertatu'	«Horrelakorik ez da, baina neurrian errenean agitzen .»	(87)
aieka 'alde, inguru'	«Errepide bazter hartatik hasi eta elizaraino bitarteko aieka bakarti hartan makina bat trapitxeo eta gabatxeo egina genuen...»	(14)
aienatu 'uxatu, aldentu'	«...eta ingurumariko aieka ezkutukoenero ere, garai bateko kiratsen aienatzea .»	(84)
ainbe 'bezainbeste'	«Oso gogoko nuen talde hura. Belarrira ainbe mintzatu zitzaidan bihotzera.»	(101)
aiuma 'kexua, aienea'	«Ez zen han inondiko zirkinik eta aiumarik .»	(24)
aizkagarri 'asaldagarria'	«...ilun-hotzaren kolorea eta arrisku gordearen sentsazio aizkagarria .»	(14)
aizkatu 'bizkortu, suspertu'	«Gaur ez diagu lo hartzen lanik. Honek aizkatuko zizkiguk gogoak honek...»	(62)
akolito 'apaizaren ume laguntzailea'	«Hala, morroi errukarri erabili izan ninduen aurreko negualdi osoan akolito , pintxe, esklabu... eta nahierara.»	(20)
alajainena 'bai horixe'	«Jaso beharko zituen ostiak ordainetan, alajainena! »	(20)
alberdania 'sexu jolas lizuna'	«...zokoetako alberdanian nikote bakanak, astoen moduan zutik lo bikote baldanak.»	(65)
alborikera 'ingurua'	«Junkaleko elizaren alborikera bizi nintzen nire gurasoekin.»	(75)
aldagoi 'haizete euritsua'	«Aurreko egunetako bisutsak eta aldagoiak bareturik ziren.»	(11)
aldaka 'mokorra, gerria'	«Lehenago zen neskatila ziztrin deuseza beteagotu zen beso, aldaka eta bularraldeetan.»	(51)
alderrai 'hara-honaka ibili'	«Batetik bestera bazterrik bazter, kalerik kale alderrai ibilian.»	(92)
aliritzira ibili 'susmoak eraginda aritu'	«Egiaz ba ote genekien hesteetan zerbait bazeramana, ala badaezpadan eta aliritzira ote genbiltzan.»	(27)
ameto 'ontzat hartu'	«Tamaina hartako adar jotzeei ameto eta paso egin eta bere horretan pasatzen utzi? Baita zera ere...!»	(67)
amila 'jaka luzea'	«Ez edana, ez gauaren gozoa ez ziren guretzat aski txupak, amilak eta zamarrak soinetik erantzeko.»	(56)
anabasa 'nahasmena'	«...trikiti aireko koplatan, esku soinu, pandero, gitarra, eta abarren hotsen anabasan .»	(37)
antxumatu 'besoak gurutzatu'	«Neskak mahai gainera antxumatu zituen ostera bibesoak eta...»	(56)
apeta 'desioa, nahia'	«Barren-barreneko gurariak, apetak eta egarriak aseko banituen, oldartu behar izango nuen ur handietara.»	(18)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
ardaila 'astrapala'	«Hura zalaparta, ardaila eta anabasa!»	(80)
ardangela 'taberna'	«Gorako eta beheko eta zeharkako kale mordo aukeran estutxoko taberna, jatetxe eta ardangelek (...) osatzen zuten gaueko Mosku hura.»	(49)
armonian ibili 'haserre eta irainka ibili'	«Gu armonian hastea besterik ez dik nahi esan, eta bakeatu zuten pitin bat.»	(67)
arranpalo 'ikaratua, harritua'	«Baita Françoisek ere, agidanez, ze begi arranpaloz begiratzen baitzidan, erruki eske...»	(26)
arrotz 'ezezagun'	«Astelehen goizetik hasi eta bien bitartekoak (...) denak begitanduko zaizkio arrotz samarrak, bere larruz kanpotikoak...»	(11)
atxamarta 'arrantzarako tresna'	«Dena zen han kinkaila, litxarrerria, trepeta, traste eta atxamarta .»	(21)
atxikia 'lotura'	«...distantzia propio mantenduaren saihekarak, ez zuten artean eten maisu harenganako atxikia .»	(46)
atzendu 'ahaztu'	«Jolasak, laineza txoroak, konplexu haizeak, alferrikako zaputzak, denak nituen jadanik atzera utziak, atzenduak .»	(19)
axanpa 'nahigabea'	«Etxeko gorabeherak eta familiakoen axanpak belarri mingarri suertatzen zitzaizkion aspaldidanik.»	(82)
azpildura 'tolesdura'	«Halakoxe kuttuna nion gordea bihotzaren mamiaren azpilduretan .»	(84)
aztal 'zangoa'	«Nolanahi ere, beti edo gehienez aztalak batek mugitu behar horrek girnatzen ninduen...»	(113)
aztarrika 'hatzez zulatzen'	«...beldur nintzen ez ote zitzaidan kontzientziaren azalmintzetan aztarrika hasiko azkazal zorrotzez.»	(52)
baga 'olatua'	«Itsasoaren azken indarrak baga ttikitari ahitzen ziren hondarretan, aparraren haserreak ere galduz.»	(48)
baiki 'egiata'	«Instititutik irteterakoan deskuidatu nintzen zorigaitzean eta berandu nenbilen, baiki .»	(14)
bakan 'urri, ez ugari'	«Nolanahi ere, bakan zebilen jendea Txingudi badiako bidegorrian ordu sasoi hartan.»	(11)
bala-bala 'ahoz aho ibili'	«Françoisek esanik izango ziola ordurako norbaiti guztia, eta jakina omen zegoen, bada, klean hotsa bala-bala hedatzen dela.»	(59)
barano 'ingurua'	«Dozena bat auto, gehienez jota, arbola biren baranoan .»	(21)
begitandu 'irudituko'	«Astelehen goizetik hasi eta bien bitartekoak (...) denak begitanduko zaizkio arrotz samarrak, bere larruz kanpotikoak...»	(11)
beilari 'gaueko zaindaria'	«...sagardi bakanak lotara-edo ezkutatuak ziren ontza zelatari utzita eta ipurtargia beilari soroetako ataketan.»	(32)
beita 'amuzki'	«Baina ordurako Aizan albora utzi eta Ekis -enera zihoan zuzen nire arrats hartako arrantza. Nik nuen eginbeharra beitarena .»	(20)
beitari 'amuzkia jartzen duena'	«Behin behar-eta ere, ni beitari abil eta bera atun tuntun.»	(23)
belzuntze 'serioa'	«Bi arbola zeuden elkarren lagun, mimosa eta hagina. Gogoan dauzkat: bata berde jantzian belzuntze eta bestea elur horitan panpox...»	(21)
bisaia 'aurpegia'	«Amaiaren irudirik pertxentena, bisaiarik politena piztu zitzaidan gogoan.»	(127)
bistatu 'ikusi'	«Orain tankera beretsuko beste batzuk bistatzen ahal nituen ibaian barrena arraunean ieupaka.»	(12)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
bisuts 'itsasoko haize gogor hotza'	«Aurreko egunetako bisutsak eta aldagoiak bareturik ziren.»	(11)
blaga 'ezdabaidan'	«Ozenik ari ziren blagan , ia garrasika.»	(99)
burgoi 'harroa'	«Atariko atean eskuin, maldan behera, Junkaleko eliza burgoia ...»	(84)
diosala egin 'agurtu, agur esan'	«Norbaitek diosala egin ere egin zidan, baita nik aio batekin agurra itzuli ere.»	(11)
ebaindu 'elbarritu'	«Joko genuen bekainean, bihurrituko genion zintzurra, xehatuko genuen, ebainduko genuen, bertantxe txikituko...»	(67)
ebatsi 'lapurtu'	«Hark jarri ote zituen, bada, mendekuaren amorrazioz, munipak gure autoaren atzetik ebatsitakoaren lorratzean?»	(42)
egonarria 'pazientzia'	«Aspaldi ari zen aita egonarria eta eskumena galtzen gure etxean...»	(82)
egundo 'sekula, inoiz ez'	«Alderdi on guzti-guztiak ere, ordea, ez direla egundo parean etortzen eta banekien neuk ere nire alotean burua kontsolatzen.»	(13)
elemenia 'gutziz ugari, trumilka'	«Gazte gordin jendea ez eze, larria ere elemenia bildu ohi zen hara.»	(61)
ematu 'trankildu'	«Zigarroak bai baitaki tentsioa ematen .»	(70)
eratsi 'bota'	«...lepogainean tankateko lehor bat erantsi eta lurrera eratsi izan ez balu...»	(70)
erausian ibili 'berriketan'	«...arboladitik Bi ahizpenera ibili ginela hirurok apar eta ke, kantuan eta erausian .»	(50)
erosuhar 'dantza zoroan'	«Elemenia zen jendea! Pistan atzeak eta aurreak erosuhar astinduz batzuk, barra-ixkinan berriketa edo zurrutean bestetuzk...»	(65)
erreberia 'uhienetan'	«...ustezko arriskuak eta ikarak piztenagotzen hasi zitzaizkidan gogoan errebediatan .»	(98)
errinatu 'haserre bizian'	«Bistan zagok errinatua dabilena. Alferrik gabiltzak...»	(63)
errukin 'errukaria, gizagaixoa'	«Hasi nintzen neure artean, lehenaz gain orduantxe kezkatan itolarriago. Errukina nauk...»	(15)
eskudel 'eskulekua'	«Terrazako eskudeleraino beso biak luzaturik, begira-begira jarri nintzaian hegaztiei...»	(80)
eskumen 'aginpidea'	«Aspaldi ari zen aita egonarria eta eskumena galtzen gure etxean...»	(82)
espa 'bekaitza'	«Ia gorrotorainoko espa hartua nion ordurako nik nire anaia hain perfektu hari.»	(79)
estolda 'ur zikinak eroateko kanala'	«Bidasoa zaharraren antzinako estoldaren eta lezoiaren gainean espaloi arrunta paratu zuten han mende hasieran.»	(11)
fortunatu 'iruditu'	«Aproposa ez eze, erakargarria ere fortunatu izan zitzaidan aurreragokoetan hango bakardade usaina...»	(14)
frantximant 'frantsesa'	«Bide askoan nekarren kezka xorra eta "noan, hala ere, agudo, ez ahal zen oraindik frantximanta egertuko eta.»	(14)
gailen 'nagusi'	«Ilunak zeuden gailen frontoi atzeko parkean.»	(61)
gaitzitu 'irainduta sentitu'	«...nondik norakoak zuritu eta kontuak eman beharrak gaitzitu eta amorrarazi ninduen instant batean.»	(78)

galtzarbe 'besapea'	«...txanpon hondar itzuliak patrikaratu eta etxealdera abiatu nintzen atzera, eskerreko galtzarbean ogi biak nituela...»	(116)
gelbera 'aspergarria'	«...eta ezin etsi nuen niretzat egina zenbait adiskide izandakoren bizimodu arrunt gelbera .»	(18)
gogoak eman ahalean ibili 'nahi dena egiten aritu'	«Ez zagok gogoak eman ahalean ibiltzerik beti.»	(53)
grinatu 'sumindu'	«Nolanahi ere, beti edo gehienez aztalak batek mugitu behar horrek grinatzen ninduen...»	(113)
gurari 'desioa, nahia'	«Barren-barreneko gurariak , apetak eta egarriak aseko banituen, oldartu behar izango nuen ur handietara.»	(18)
hagitz 'oso'	« Hagitz dotore ikusi nuen soineko jantzian.»	(51)
hustuenean 'zenbat eta hustuago'	«Patrika barrenak hustuenean , agudoago eta hobe.»	(23)
ikuspada 'begiratu arina'	«Lehendabizi egunkariari heltzeko ohitura nuen beti ere. Abioan eman ohi nion ikuspada ...»	(118)
ilaun 'motela'	«Argi hori ilauna , bi fluoreszente luzek emana.»	(37)
irago 'igaro, pasatu'	«Arestian albotik saltoka irago zitzaizkidan zenbait futinzale.»	(11)
iso 'ixo, isildu'	« Iso . Utzi orain alde batera berriketak eta gabiltzan azti.»	(16)
itsumandoka 'itsu-itsuan'	«Kalera jo nuen itsumandoka eta akabo. Gaur arte...»	(46)
itzalgaizka 'ezkutuka, gordeka'	«Asko nabarmendu gabe, hango bazterretara itzalgaizka begira jarri behar izan nuen.»	(15)
izaki 'izanik'	«Argal motza izaki , bihotza beti estu.»	(14)
jaiera 'jitea'	«Gazte jendeak jaiera handia du harako.»	(41)
jaulki 'atera'	«Françoisi eztarritik ez zitzaion hitzik jaulki ...»	(25)
jauzikatu 'salto egin'	«Errepidean beste aldera jo behar izan genuen noski eta burdinazko ataka herdoildu bat jauzikatu .»	(23)
kalamatrika 'hausnarketa, erretolika'	«Buru makur hartan jiraka bazerabilkeen ordurako kalamatrika ederrik seguru asko.»	(27)
kalipu 'adorea'	«Sor eta lor utzirik ninduen, ahobete hortz eta ezertara erreakzionatzeko kalipurik gabe.»	(131)
kankarro 'buztinezko ontzia'	«Egurrezko saskiak, zumezko otarreak, lurrezko kankarro eta suilak.»	(21)
katajineta 'animalia mota, katukia'	«...marinelek jantzi ohi duten txano horietakoa, harizkoa, katajineta ren buztanaren gisa berberekoa.»	(17)
kibisto 'korapiloa'	«Hangoxe kibistoa askatu zion.»	(26)
kinkaila 'metalezko tresneria'	«Dena zen han kinkaila , litxarrerria, trepetak, traste eta atxamarta.»	(21)
kinkaileria denda 'denetik saltzen duen denda.	«...eta gainerako inguru guztia trapu dendaz, pitxi dendaz, kinkaileria denda eta tabernaz itoa...»	(14)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
kirika 'kukuka'	«...eta han ari zen arboladiko hosto lotaratuen zirrikituetatik kirika eta kalekantoietan zelatan.»	(49)
kitzikatu 'eragin'	«Damuak ez zidan barrena askorik kitzikatzen .»	(30)
kontu 'eutsi'	«Errezela bat loretsua, (...) kanpotiko argi hondarrak ekarri ez baina barreneko argia bertan kontzen zuena.»	(37)
korkokari 'kulunkaria'	«Plastiko sendo gorritzko aulki kordokari bana hartu eta mendi mazela zabal bati begira jarri ginen.»	(38)
kuxidade 'garbitasuna'	«Ez zen jasoia tokia ; ez zen han kuxidade onik. Bai, baina, gordea eta geriza.»	(93)
laineza 'harrokeria'	«Jolasak, laineza txoroak, konplexu haizeak, alferrikako zaputzak, denak nituen jadanik atzera utziak, atzenduak.»	(18)
laketu 'dibertitu, gozatu'	«Hiru kolegok garagardoaren aparretan laketuko ginen handik hara.»	(48)
lardosia 'sobredosia'	« Lardosia edo, agidanean.»	(91)
leba 'garrantzia'	«Huskeria hari leba emateak ez zuen balio.»	(113)
lezo 'luebakia, trintxera'	«Bidasoa zaharraren antzinako estoldaren eta lezoien gainean espaloi arrunta paratu zuten han mende hasieran.»	(11)
litxarrerria 'goxokiak'	«Dena zen han kinkaila, litxarrerria , trepetak, traste eta atxamarta.»	(21)
lorratza 'arrastoa'	«Hark jarri ote zituen, bada, mendekuaren amorrazioz, munipak gure autoaren atzetik ebatsitakoaren lorratzean? »	(42)
makur 'biguna'	«Parrandarako makurra naun hemengo gehienak bezalatsu.»	(53)
maripulis 'jaka mota'	«Belaunetara baino beheragorainoiko maripulisa zekarren soinean, beltza hango itxura batera.»	(66)
marranta 'katarroa'	«Izango dik gaur ere nihotz errea edo marranta edo kasketako mina...»	(113)
mazela 'malda, aldatsa'	«Plastiko sendo gorritzko aulki kordokari bana hartu eta mendi mazela zabal bati begira jarri ginen.»	(38)
murko 'hezia'	«Zubia erreka bazterreko murkotik ez zen bereizten ahal.»	(39)
musaje 'itxura'	«...halamoduzko musajea ikusi nion egunari, nire jakintza urrian.»	(115)
mutiri 'bortitz, zakar'	«Hitzik gabeko musika zetorren ezkutuko bafleetatik ozen, mutiri .»	(65)
muzin 'iluna'	«Eguraldi muzina jarri zuen Bidasoa aldean.»	(92)
narrats 'zikin'	« Narrats sentitzen nintzen.»	(102)
odoluzki 'ipurtzuloko hanpadurak'	«Nik goxatuko dizkiat hiri odoluzkiak ...!»	(27)
okerrets 'txartzat hartu'	«Eta kaskezurrean hazka eginez, garunen aritu eta aritu behar setatia okerretsiz , pentsatu nuen...»	(112)
okitua 'itua'	«...kalezuloko zomorro etsikoia, drogotan okitua ..., handik onik atera ez-eta...!»	(134)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
oldartu 'gogo biziz sartu'	«Barren-barreneko gurariak, apetak eta egarriak aseko banituen, oldartu behar izango nuen ur handietara.»	(18)
otzandu 'baretu'	«Hantxe otzandu zitzaizkion aurreko haizeak eta lainezak.»	(27)
pallan-pallan '	«Badaezpada atea ondo itxia nuela egietsi eta, pallan-pallan , astiro ekin nien hango egitekoei...»	(121)
paratu 'ipini'	«Eta esanarekin batera, txaja zabaldu eta zilborretik aparte gabe paratu zion zemaika.»	(24)
pasiada 'paseoa'	«Negua negu giro zegoen pasiadarako .»	(11)
pikotxean jarri 'kokoriko jarri, makurtu'	«Begiak eta gerriak bildu eta pikotxean jarri zen kakaginean.»	(27)
piririka 'bueltakea'	«Garagardo baso ia hutsa jo eta bota nuen piririka .»	(91)
pitokeria 'kokolokeria'	«Malapartatua, zeren zer pitokeria ez ote zidan hark egin, drogaren jiran hasi berriko ume moko bat besterik ez nintzelarik!»	(19)
pittika 'atearen segurua'	«Nola ixten ohi den autoan atea pittika bati sakatuta, bada, halaberean nuen nik nire barrena berriro itsuan itxi, ttak.»	(47)
piura 'itxura'	«Hemen bistatzen duan piura luze hau gezurra, konplexua eta zikina besterik ez duk.»	(77)
pozkida 'poztasuna'	«Primeran iruditzen zaidak —albotik pozkidaz nik.»	(104)
prantatu 'jarri, kokatu'	«Taberna barrenetik kantu hotsak zetozen bitartean, isilean zain egotera prantatu ginen kolega argalaren esanera.»	(16)
rau batean 'zizu bizian, arin baten'	«Auto gorri batek ia-ia jo eta bota zuen. Bunba-bunba!, bakalau-soinuarekin irago zen rau! batean .»	(61)
saiheskara 'urruntasuna'	«...distantzia propio mantenduaren saiheskarak , ez zuten artean eten maisu harenganako atxikia.»	(46)
suila 'buztinezko ontzia'	«Egurrezko saskiak, zumezko otarreak, lurrezko kankarro eta suilak .»	(21)
taigabe 'eten gabe'	«Larregi errez gero, tira eta tira taigabea saguzarrak bezala...»	(87)
trepeta 'sukaldeko tresna'	«Dena zen han kinkaila, litxarrerria, trepeta , traste eta atxamarta.»	(21)
tronpo 'droga mota'	« Tronpoak , bertzerik ez diat. Kalitatekoak, hori bai. Bosna talegotan.»	(23)
txaja 'labana'	«Eta esanarekin batera, txaja zabaldu eta zilborretik aparte gabe paratu zion zemaika.»	(24)
txikote 'droga'	«Egungo gaua egiteko, berriz, badiat nik aski txikote hirurontzat...»	(40)
xalo 'apal-apal'	«Baietz erranen nuke —erantzun zuen Martzialek xalo asko...»	(44)
xare 'difuminatua'	«Eta jakin ere bazekiat, bestalde, zoriona laino- xare bat dena...»	(56)
xehero 'zehatz-mehatz'	«Harexek emango bide zion xehero kaleko berri...»	(17)
xor 'latza, gogorra'	«Bide askoan nekarren kezka xorra eta "noan, hala ere, agudo, ez ahal zen oraindik frantximanta agertuko eta.»	(14)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
xoxotuta 'liluratuta'	«Nire gogoz kontrara ari bazen ere, nolabait, esanak esan, xoxotuta nindukan Amaiak orduantxe.»	(54)
zabu eta ziraldo 'albo batetik bestera'	«Bien bitartean, iji eta aja, burua tente lepo gainean eutsi ezinda, zabu eta ziraldo , beste ezertarako ez eta zigarroa edo piztu zuen Zabalak.»	(88)
zapuzkeria 'txarkeria'	«Okera eta zapuzkeria ugari erabili zuen urtebete eskasean eta atzera lehenera bihurtua zen hura.»	(12)
zarrastatu 'urratu'	«Gizakiaren bihotza ez omen da irekitzera prestatzen, ez badu laban batek zarrastatzen .»	(28)
zemaika 'mehatxuka'	«...eta "Hau dena saldu behart didak hainbertzean — zemaika esaten—, igande arratsalderako."...»	(20)
zindo 'zintzo'	«...jakin ere banekien ongixko bihotz handi bezain zindoko mutila nuela hura...»	(99)
zurkaitz 'petrala'	«Atezaina. Nor tokatuko gau hartan, eta betiko zurkaitza tokatu!»	(63)